

Etika Publikorako Batzordea

Aztergaia: 3/2017

EUSKO JAURLARITZAKO (...)KO SAILEKO (...) ZUZENDARI DEN (...) JAUNAK (...) S.L. ENPRESAREKIKO KONTRATUGINTZAN BALIZKO INTERES-GATAZKARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKO ERABAKIA

1.- Interesdunak, (...) Saileko zuzendariak, kontsulta egin zion Etika Publikorako Batzorde honi, 2017ko urtarrilaren 13an, (...) S.L. enpresarekin kontratatzeko orduan interes-gatazkarik ba ote dagoen jakiteko.

2.- Bere idazkian esaten duenez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak, 8. artikuluan, "(...)ko zuzendaritzaren egitekoak, baliabide materialak eta giza baliabideak" hemendik aurrera (...)ko Sailari gehituko zaizkiola ezartzen du. Kontsulta-egileak sail horretan dituen funtzio eta ahalen artean honako hauek sartzen dira: bere saileko milioi bat eurora arteko gastuak baimentzeko ahala eta kontratazio-organoaren berezko ahalak, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua bost milioi eurotik beherakoa duten kontratuen kasuan.

3.- (...) Zuzendaritzak, aurreko legegintzaldian (...) Sailari atxikia, –gehitzen du kontsultaren egileak– "kontratuak egin ditu aurreko aurrekontu-ekitaldietan (...) S.L. enpresarekin zenbait laguntza teknikotarako".

4.- (...) jaunaren ustez, interes-gatazka egon liteke, zeren eta "gaur egun, (...) Zuzendaritzaren asmoa baita enpresa horrek ematen dituen zerbitzuekin jarraitzea, Zuzendaritzak dituen helburuak betetze aldera"; aipatutako sozietatea –gehitzen du– "hiru bazkidek osatzen dute, eta horietako birekin bigarren mailako ahaidetasuna dut".

5.- Gauzak horrela, Etika Publikorako Batzordearen iritzia eskatzen du, jakiteko "nola jokatu behar dudan etorkizunean "(...) S.L. enpresaren zerbitzuak kontratatu behar izanez gero". Egiten den kontsulta Etika eta Jokabide Kodearen 11.3 artikuluko bosgarren puntuaren ezarritakoaren ildotik dator; honela dio letra horrek: "Bere betebeharrekin eta erantzukizunekin talka egiten duten edo egin dezaketen interes-gatazka posible baten eraginpean egon daitekeen kargu publikodun eta parekatuek berehala jakinarazi beharko diote hori Etika Batzordeari eta, idatzita ahal bada, gatazka horren berri eman beharko dute, edo, bestela, gutxienez, unean bertan edo etorkizunean balizko interes-gatazka bat egon daitekeelako zalantza jakinarazteko betebeharra dute".

6.- Etika Publikorako Batzorde honen Idazkaritzarekin izandako elkarrizketa batean, interesdunak adierazi du ez duela parte hartuko, kautelazko neurri gisa, kontratazio-organo moduan diharduen sailaren inolako kontratu-prozeduratan, baldin eta horietan (...) S.L. enpresarekin zuzeneko edo zeharkako harremanik badago. Horrela eskatzen du, bestetik, EJKren 11.3 zenbakiko azken tarteki den bosgarren puntuak: “Interes-gatazka bat pizten bada, edo gatazka hori egon daitekeelako zalantza sortzen bada, kargu publikodun eta parekatuek, erakundearen izen ona zaintzeko kautelazko neurri gisa, ez dute esku hartuko ezer erabakitzeko edozein prozesutan, prozesuan esku hartuta interes-gatazka bat pizteko zalantza txikiena ere egonez gero”.

7.- Hori horrela, hauxe da EPB honek, Etika eta Jokabide Kodearen (EJK) 16.4 artikuluko bigarren idatzi-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, aho batez hartu duen

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- Gobernu Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartutako Etika eta Jokabide Kodea politikaren etika-zentzua berreskuratzeko asmoz sortu zen, bai eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza berreskuratzeko neurri gisa ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodeak identifikatu egiten ditu Eusko Jaurlaritzako goi-mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikoei eta parekatuei eska dakizkiekeen jokabide, jarrera eta portaerak, haien jarduera publikoak eta pribatuak bat etor daitezen dokumentu horretan aurrez zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea da azken batean, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegina eginez.

2.- Etika eta Jokabide Kodeak oinarritzko bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna, kudeaketari lotutako erantzukizuna, gardentasuna eta gobernatze irekia, onestasuna eta desinteres subjektiboa, eta errespetua eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek erreferentzia-parametrotzat hartu behar ditu gai eta zalantza etikoei erantzun beharra egokitzen bazaio, beren borondatez kodearekin bat egiten duten kargu publikoek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko interesa duten gainerako pertsonak halakorik helaraziz gero.

3.- Horretarako, Kodearen 16.3 artikulua bosgarren puntuan ezarritakoaren arabera, EPB da organo eskuduna, eta berari dagokio “Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea”

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Kontsultaren egileak iritzia eskatu dio EPB honi jakin nahi duelako nola jokatu behar duen Eusko Jaurlaritzako (...)ko Saileko kontratazio-organo gisa “etorkizunean (...) S.L. enpresari kontratua egiterakoan”; izan ere, sozietate hori hiru kidek osatzen dute, eta horietako birekin bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna du interesdunak.

2.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 60. artikulua arabera, ondorengo egoeretako batean dauden pertsonak ezingo dute sektore publikoarekin kontratatu:

g) Pertsona fisikoa edo pertsona juridikoaren administratzaileak Gobernuako Kideen eta Estatuko Administrazio Orokorreko Goi-kargudunen interes-gatazkak arautzeko apirilaren 10eko 5/2006 Legean edo dagokion autonomia-erkidegoko araudian aipatutako kasuren batean sartuta egotea [...]

Edozein administrazio publikotako langileek eta goi-kargudunek edo administrazio horien zerbitzura diharduten hautetsiek pertsona juridiko baten kapitalean parte hartzen badute, aipatutako legerian zehaztutako moduan eta zenbatekoekin, pertsona juridiko hori ere debekuaren barruan sartuko da.

Debekuak berdín hartzen ditu, bi kasuetan, aurreko lerroketan aipatutako pertsonen ezkontideak, antzeko harreman afektiboetan bizi diren pertsonak, aurreko eta ondorengo ahaideak, baita bigarren mailako odol-ahaidetasunezko edo ezkontza-ahaidetasunezko senitarteak ere, baldin eta interes-gatazka gertatzen bada kontratazio-organoaren titularrekin, haren ordezkorekin edo kontratatzeko ahalmena ordezkaturako organoen titularrekin.

3.- Transkribatutako zatiaren lehen paragrafoan aipatzen den arau autonomikoa, EAeko kasuan, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legea da, zeinak 9. artikuluan, kargu publikodunen zuzeneko senideei dagokienez, honela baitio: “Interes-gatazka izango da lege honek obligatutako subjektuek parte hartu behar dutenean interes orokorra edo beren eginkizunari dagokion interes publikoa eta norberaren interes pribatuak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak edo *zuzeneko*

senideek dituztenak aldi berean biltzen dituzten gaiekin lotutako erabakietan, lege honetan ezarritako eran”. EJKren 11.2 zenbakiak ere bide horretatik jotzen du: “ Interes-gatazkak sortzen dira [...] kargu publikodunek erabakietan esku hartzen dutenean, baldin eta erabaki horiei lotutako kontuen atzean, postu publikoak dituen interesekin batera, beste hainbat interes badaude: norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak [...]”.

4.- Interes-gatazkari dagokionez eta “zuzeneko senitartekoak” zeri esaten zaion zehazte aldera, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen 1/2014 Legearen 10. artikulua honela dio: “[...] kargu publikodunek ez dute parte hartuko beren interesak, ezkontide edo izatezko bikotekidearenak edo laugarren mailara arteko odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatzen dituztenak agertzen edo bultzatzen diren jarduera, erabaki edo ekimenetan”. Beraz, badirudi argi dagoela kontsultaren egileak egin digun galderaren kasua (bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna) sartuta dagoela abstenitzeko betebeharra ezartzen duen arauan jasotako egitatezko baldintzen artean: “laugarren mailara arteko odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko senideak”.

5.- Horrenbestez, aktibatu behar da EJKren 11.3 zenbakiko seigarren letran ezarritako kautelazko mekanismoa; interes-gatazka izan dezaketen kargu publikodunei dagokienez, honela dio arauak puntu horretan: “nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte beren ardurak, edo, bestela, egoera horietakoren batean ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodun baten esku”.

6.- Beste batzuetan luzeago adierazi dugunez (ikus, besteak beste, 6/2013 Erabakia), zintzotasuna, objektibotasuna, inpartzialtasuna eta interes-gatazka arautzeko EJK-k egiten dituen aurreikuspenen (5, 6 eta 11 zenbakiak) helburua ez da, soilik, EJK-k finkatutako zuzentasun eta desinteres subjektiboko estandarrari dagokionez sor litezkeen desbideratzeak saihestea. Horretaz gain, desbideratzeak egon litezkeen inguruko zalantza oro ere uxatu nahi dira. Helburua da, EJKren beraren hitzetan, guztiz baztertzea “ebazpen edo erabaki bat erabakia hartu duenaren [...] mesederako hartu dela edo edozein eratako interes partikularrek eragindakoa dela pentsatzera eraman lezakeen **usmo edo zalantza oro**. Bestetik, kargu publikodunek, “ez dute jardungo pertsona baten edo erakunde publiko zein pribatu baten alde, eta ez dute egingo pertsona edo erakunde horien alde jardun dutela pentsatzera eraman dezakeen susmorik sor dezakeen ezer. Nahikoa da, beraz, goi-kargudun edo parekatuaren jardunbideak arrazoizko zalantza bat sortzea edo sortu ahal izatea haren onetasun, inpartzialtasun, zintzotasun edo objektibotasunari buruz, kodearen 5.2.4 eta 11.3 zenbakiek hizpide dituzten kautelazko edo badaezpadako mekanismoak abian jartzeko: parte hartzeari uko egitea edo, bestela, alde aurretik EPB honi galdetzea.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da Etika Publikorako Batzordeak aho batez hartutako

ERABAKIA:

1.- Interesdunak uko egin beharko dio (...) S.L. enpresarekin –zeinaren bi bazkiderekin bigarren mailako ezkontza-ahaidetasuna baitu–, zuzenean edo zeharka, zerikusirik izan dezaketen prozeduretan parte hartzeari; kautelazko mekanismo hori interes-gatazkak saihesteko izateaz gain, partzialtasunaren eta faboritismoaren inguruko zalantza oro uxatzeko ere bada.

EJKren 11.3 zenbakiko seigarren letran ezarritakoaren arabera, “nagusi hierarkikoaren esku utzi beharko dituzte beren ardurak, edo, bestela, egoera horietakoren batean ez dagoen saileko edo erakundeko beste kargu publikodun baten esku”.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio.
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteizen, 2017ko otsailaren 14an